

ASTE SANTUKO LANETAN PARTE HARTZEKO GONBITA

Herritar estimatuak:

Seguran, Aste Santuaren inguruko tradizioak 300 urte baino gehiago ditu. Prestaketa lanetan ari gara eta denon laguntza behar dugu. 300 herritar inguruk parte hartzen dugu bertan.

Martxoaren 28an eta 29an, Ostegun eta Ostiral Santuan, Elizkizun bereziak egingo dira eta prozesioak irtengo dira gure kaleetara. Mesedez, erdi gunean kotxeak kaleetan ez aparkatu prozesioak irauten duten bitartean.

Lan ezberdinetan parte hartzeko deialdia egiten dizuegu.

MARTXOAK 16, LARUNBATA. PARROKIAN:

Eliza garbitu eta Santuak atontzea, 9:00etan

Aingeru jantzi arropak jasotzea, 10:30ean



MARTXOAK 28 eta 29, OSTEGUN eta OSTIRAL SANTUA.

Udaletxean: Nazareno eta Penitente jantzi nahi dutenak, 16:00etan

Parrokian: Monagilo jantzeko meza hasi aurretik

Parrokian: Santu Eramaileak, 18:00etan



APIRILAK 13, LARUNBATA. PARROKIAN

Dena jasotzea, 9:00etan

Eskerrik asko eta laster arte, Seguran, 2024ko martxoaren 8an.

ASTE SANTUA TALDEA